

ONDASUNA BANATU, ESKUBIDEAK BERMATU, ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU

Joan den azaroaren 19an Eskubide Sozialen Kartak sistema aldatzea eskatu zuen, biziari eta zaintzari benetan lehentasuna emate aldera, eta privatizazioen alde egin ordez zerbitzu publikoak indartzeko ahalegina egin dadin.

Esan genuen orduan aurrekontuak egiteko unea egokia dela norabide hartarantz aurrera egiteko borondate politikoa adierazteko. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren 2021eko aurrekontua zela eta honako neurriak har zitezela eskatu genuen:

- Pertsonen zaintza arloko zerbitzu publiko privatizatuen publikazio urgentea, horretarako beharrezko baliabideak bideratuz.
- BPGaren %6 hezkuntzara bideratu, eta %7 osasungintza publikora.
- Etxebizitza publikoen parke bat bermatzea, Nafarroako biztanle guztiei salbuespenik gabe eskaintzeko.
- LGS adineko errenta bermatua.
- Pentsioak osatu gutxienez 1.080 eurokoak izan daitezen.
- 1.200 euroko gutxieneko soldatak eta gehienez 35 orduko lanaldiak arlo publiko guztian eta honen kontratetan, irauten duten artean.
- Premiazko neurriak modu irregularrean bizi diren edo lan egiten duten pertsona guztien egoera erregularizatzeko.

- Makroazpiegiturak geldiarazi, zuzenean edo zeharka pertsonen beharrianak ez diren xedeetara diru publikoa desbideratzen duten kasuetan. Horretarako ezinbestekoa zen ere premiazko zerga-erreforma bat gauzatzea, zergak zinez igotzeko enpresen etekinei, ondareei eta errenta altuei zein kapital-errentei. Azaroaren 20an plazaratu genuen zerga-erreformarako gure proposamen konkretua, diru-bilketa oparagoa eta justuagoa izan dadin.

Badakigu ezen, 2008ko krisiaren ondoren gertatu zen bezala, zerga-erreforma sakon eta azkarrik egiten ez bada egungo zorrak lehenago edo beranduago murrizketa sozial gogorrek ekarriko dituela biztanle gehienentzat.

Neurri horiek guztiak eta beste batzuk bete-betean garatuko badira beharrezkoa da subiranía osoa, Nafarroan erabaki ahal dadin lan baldintzen eta biztanleriaren bizi-baldintzei buruzko kontu guztiei buruz.

Gure aldarriak ez dira berriak; pentsio-sistema publikoaren alde, prekaritatearen aurka eta eskubide sozialen alde urtarrilaren 30ean egin genuen greba orokorrean eman genituen ezagutzera. Nafarroako Gobernuaren 2020ko aurrekontuak hain zuzen greba orokor haren ondoren onartu ziren. Eta, 2021ko aurrekontuen kasuan bezala, aurrera atera ziren Gobernuako kideek (PSN, Geroa Bai eta Podemos-Ahal Dugu) EH Bildurekin iritsi zuten akordioari esker.

lehenik bizitza

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ETA NAFARROAKO AURREKONTUAK

Kartak esan zuen 2020ko aurrekontuez hauek ez zietela erantzunik ematen Greba Orokorreko aldarriari. Aurrekontu akordioan sartzea 1.200 euroko gutxieneko soldataren erreferentzia edota 1.080 euroko gutxieneko pentsioari buruzko ikerketa bat keinu sinboliko bat besterik ez zela, ondorio praktikorik gabea eta, horrenbestez, nahikoa ez zena.

Gaurko egoera are larriagoa da, Covid-19ak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoari aurre egin behar baitzaio. Konfinamendu garaian sistemaren gabeziak agerian geratu ziren. Eredua aldatu beharra dago; bizia erdigunean kokatzen duen beste eredu baterantz jo behar dugu. Beraz, are premia handiagoa da galdatzen ditugun neurriak aplikatzea.

Haatik, Nafarroako Gobernuak -zeina PSNk, Geroa Baik eta Podemos-Ahal Duguk osatzen duten- egin duen aurrekontu proiektuan ez dago norabide berririk: aurrekontu kontinuitateak dira, eta hauek aurrera ateratzeko Gobernuak eta EH Bilduk itxi duten akordioak ez du hori aldatzen.

Eskubide Sozialen Kartak berriz ere arbuiatu egin behar du aurrekontuetan jaso ez izana duela bi aste eskatzen genituen puntuetako bat ere. Ez egoera larriaren tamainako aurrerapausorik, ez eta aurrera egiteko aukera eman dezakeen zerga-erreformarik ere. Gobernuak benetako zerga-erreforma bati uko egiteak eragotzi egiten du politika publikoak aipatzen dugun norabidean egiteko modua. Gainera, nafar gehien beharrezanetarako konponbideak erabakitzeke eskubidearen aldarrikapen falta ikusten dugu. Eztabaida

isilarazten edo atzeratzen ari dira, izan ere, ez baitute kapitalaren eta eskuinaren interesekin talkarik izan nahi.

Zerga-erreformari ekin behar zaio zergatan diru gehiago eta berdintasun handiagoz biltzeko, eta hori orain egin behar da; ezin da atzeratu. Ikerketa batzuk egiteko akordioa goraiatzea (hori dagoeneko otsailan bazegoen, zehaztu gabe bada ere), ezer aldatzeko konpromiso konkreturik gabe, sinbolikoa ez ezik errepikakorra da.

Azken urteetan gauza bat argi geratu da: Borroka sindikal eta soziala behar-beharrezkoa da aldarrikatzen ditugun erako aldaketa estrukturalak bultzatzeko. Mobilizazioa oinarritzkoa da aldaketa politiko eta sozialean aurrera egiteko. Mobilizazioa zerga-erreformaren alde, gehien dutenek gehiago ordain dezaten. Mobilizazioa herritar eskubideak bermatuko dituzten zerbitzu publikoen alde. Mobilizazioa biztanleria guztiarentzako lan eta bizi duinaren alde, Nafarroan lan-eta bizi-baldintzak erabakitzeke eskubidearen alde.

Gure eskariei erantzun egokirik ematen ez zaienez, Eskubide Sozialen Kartak dei egiten du azaroaren 28an izango den manifestazioan parte hartzera, galdegiteko orain behar ditugula sail sozial handiagoak dituzten aurrekontuak, eskubide sozial berriak aitortuko dituzten aurrekontuak, eta exijitzeko berehala onartu behar dela zerga-erreforma justu eta sakon bat.

AURREKONTU SOZIAL, PARTE-HARTZAILE ETA SUBIRANOAK. ZERGA-ERREFORMA, ORAIN!

MANIFESTAZIOA, azaroaren 28an

Iruñeko Autobus Geltoki zaharretik, 17:30etan

#OndasunaBanatu
#LehenikBizitza

